

## BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure enpresak eskaintzen dituen zerbitzuak asetzen duten behar nagusia aisialdia da. Baina ez edonolako aisialdia, guk proposatzen duguna esperientzia paregabea da, guztiz berritzailea. Gure bezeroek, Lamprea jatetxe eta instalazioetara heltzeko itsasontziak izango dituzte eskuragarri zenbait herrialdeetako hainbat kostaldetako hirietan: Bartzelona, Marsella, Menorca, Genova, Valentzia, Palma... Handik abiatuta ordu bat inguruko bidai lasaigarria izango dute gure instalazioetaraino, eta bertan gure eskaintza berritzaile eta anitzaz gozatuko dute.



Eskuragarritasunaz gain, gure zerbitzu katalogo zabalak askotariko bezeroentzako diseinatuta dago, haien behar, baliabide eta profil anitzei egokituak; izan ere, prezio desberdinetako tarifak eskaintzen ditugu jarduera gehienetan, gure bezeroek haien nahiekin bat egiten dutenak aurkitzeko, beti ere haien poltsikoak xahutu gabe. Hala ere, gure zerbitzuen kalitate optimoa bermatzen dugu beti, prezioa edozein izanda ere.

Esaterako, gure jatetxeak bi zerbitzu eskaintzen ditu bezeroen nahi eta beharrei egokituak. Batetik, itsas gaineko ikuspegiak dituen gune irekia dugu, lasaitasunez janari arinez gozatzeko, edozein terrazan bazeunde bezala; hala nola tapak, pintxoak, itsas-gosegarriak... Bestetik, itsas azpiko solairuan, itsas barneetara ikuspegiak dituen jatetxe zonalde dotorea dugu, eta bertan gure sukaldaririk onenak prestatutako afari zein askariak dastatu ditzazkezu itsas barneko mirariak ikusten dituzun bitartean. Bi solairuetan eskaintzen diren jakiak [Basque Culinary Center](#) unibertsitate prestigiotsuan hezitako sukaldari gazte eta profesionalen osatutako taldeak diseinatu eta prestatzen ditu, inguruneetan arrantzatutako itsas produktu bikainak balorean jarriz eta Mediterranear itsasoa plateretan plasmatur.



Horretaz gain, prestazio onenak eta diseinu xarmagarria eskaintzen dugu, Tomás Alía (<https://www.instagram.com/tomasaliadesign/?hl=es>) arkitekto eta diseinari ospetsuaren laguntzarekin inguru oso berezi eta zinezkoa sortzea lortu baitugu, bezeroa gustora sentitu dadin eta mundutik egun batez ihes egitea ahalbidetzeko.

Bestalde, gure instalazioak ingurunerako oso onuragarriak dira; izan ere, inguruko itsasoko zabor eta plastikoa biltzeaz arduratzen gara, eta horrekin eskaintzen ditugun zerbitzuetarako behar ditugun hainbat tresna sortzen ditugu; esaterako, jatetxerako mahai-tresnak, lasai-guneko etzaulkiak, zenbait apaingarri... Gainera, itsas mareak eta korrontek erabiltzen ditugu energia sortzeko, argi energia eskaintzen diguten eguzki-paneletaz gain, gure tresneria elektrizitatez hornitzeko.



<https://www.idae.es/tecnologias/energias-renovables/uso-electrico/energias-del-mar>

(Idae - Energías del mar)

<https://ovacen.com/energia-marina/>

(Ovacen.com - Energía marina: Qué es, tipos, ventajas y desventajas)

Beraz, laburbilduz, gure aisialdi eskaintza besteengandik bereizten duena eta paregabe bihurtzen duena itsaso gordinean esperientzia autentikoa bizitzeko aukera eskaintzearen berritasuna da, mota guztietako bezeroei egokitutako eta pertsonalizatutako ekintzen bitartez, prezio tarte zabala eskainiz (eskuragarrienatik luxuzkoenera arte), diseinu erakargarriez apaindutako eta prestazio hoberenetaz hornitutako gune espezializatuekin (solarium-a, bainurako eta murgiltzeko prestatutako itsaso gunea, jatetxea...), gure pertsonal jatorraren atentzio pertsonalizatuarekin; eta gure zerbitzu guztietan, batez ere jatetxean, eskaintzen dugunaren kalitatearen bitartez.